

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Hasiera batean, gure produktuaren berri ez denez jakingo, iragarkiak jarriko ditugu. Horretarako, publizitateaz arduratuko direnak iragarki erakargarriak sortuko dituzte, eta sare sozialetan zintzilikatuko dituzte fundak ezagutzera eramateko.

Bezeroak mantentzeko, sare sozialetan zozketa batzuk egingo ditugu, honela, gure bezeroen arreta areagotuko dugu. Hori gutxi ez balitz, beraien sare sozialetan zozketan parte hartzen dutela adierazteko argitaratu egin beharko dute, beraz, beraien jarraitzaileek gure berri izango dute, eta modu honetara, entzunagoa bihurtuko da MON enpresa.